




EAEko BPGa %1,6 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

BPGaren bilakaera EAEn
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako aurrerapenaren arabera, **EAEko ekonomiaren BPGa %1,6 hazi zen iazko hirugarren hiruhilekoaren aldean**. Hori horrela izanda, 2022ko bigarren hiruhilekoan hasi zen moteltzeko prozesua geldiarazi da. Beste aldetik, enpleguaren arloan ere %1,6ko gehikuntza lortu zen, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Industriaren negozio zifra %0,5 handitu zen

Negozio zifra industrian
Urte bakoitzeko abuztua. Indizea




Iturria: INE.

Aurtengo abuztuan, INEk argitaratutako azken datuen arabera, **industriako negozio zifra %0,5 hazi zen aurreko urteko aldi beraren aldean**. Igoera horren ondorioz, aurtengo indizea izan da abuztu batean inoiz lortu den handiena.



Hoteletako gaualdien kopurua berriro igo da

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko iraila. Milakoak




Iturria: Eustat.

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hotel establezimenduetan igaro ziren gaualdien kopurua **%12,7 handitu zen irailan**. Guztira 700.000 gaualdi baino gehiago erregistratu ziren, irail batean inoiz jaso den kopururik handiena baita.

EAEko esportazioak %11,7 gutxitu ziren abuztuan

Atzerrira esportatutako ondasunak
Urte bakoitzeko abuztua. Milioi euro



Iturria: Eustat.

Abuztuan, Euskaditik atzerrira bidalitako ondasunen esportazioen balioa **%11,7 jaitsi zen, aurreko urteko aldi beraren aldean**. Jaitsiera hori batez ere produktu energetikoen bilakaerak eragin zuen, horien balioa **%33,4 murriztu** baitzen. Era berean, energiaz bestelako produktuen **%8,9 gutxitu** zen.